

Saint never mind

I

txaroren aurreko kolaborazioaren eta honako nirearen artean, idatzi bitarteko aste honetan, Itxaro bera, *in person*, ttakunean hasi nintzenetik lehenbiziko aldiz, nire bizitza osoan bigarrenez, ikusteko parada izan dut Donostian, EHGAMek antolatu mahainguru batean. Lotsati, uzkur edo are xomorro xamarra naiz ni harremanetarako, halere, baieztatu nuenez, gure arteko komunikazio sasi epistolar honek badu eraginik bizitza errealean: konfiantza osoz hasi ginen solasean. Baita artikulu hauetan erabili izan ditugun gaiez ere. Latinezko aipamenik egin behar gabe.


Pasa den asteen –ez naiz oroitzen paper honetan izan zen ala *off the record*– Itxarok esaten zidan inor ez dela lanetik kanpo daukan denbora librean dituen debaldeko egin-tzetaz mintzo. Joera handiegia, herdoilduegia dugula lanaren bide egina ibiltzeko, gure borrokaldiak aletzeko, eta ez gure pausaldiak. Neurri batean logikoa da. Beldur diogu lanetik kanpoan izan gaitezkeenari, azken finean geure buruari –irakurle arretatsuak jarraituko du lanaren eta borrokaren artean aspaldi ezarri dugun konparazioa, nik denbora guztian seinalatu gabe–. Beldur hori, idazketa lana –ala aisia zen?– dugun artean nola gauzatzaren den ere azter genezake. Latinezko aipuen, jolas kontzeptualen, *interface* martetarren gibel ezkutuka gabilitza, egia *gezurraren* bitartekaritzarik gabe esaterik ez baitago. Zer gertatuko zen, Itxaro, Josi, ttakunen fikzio honen kristaltxo hau-tisiko balitzaigu eta benetan ez garen adiskideak bagina bezala jardungo bagenu, gutaz aparteko irakurlerik dagoela ahantzirik?

Agian jadanik gertatu da, edo gertu dago, agian jadanik idazki hauek elkarri bidaltzen dizkigun Mikel onak ez du aldizkarira gure ttakunik bidaltzen, agian gurea

JOSU SANTISTEBAN



Angel Erro



Basterretxea



Borda

benetan da hiru lagunen arteko solasaldi pausatua, non ez dugun kanpoko inor liluratu ez epatatu behar. Hau lasaialdia!

Kontatuko dizuet zertan ari naizen: Sanferminak dira Iruñean. 6a izaten da egunik hobere-rena, seguruenik festa egunez-koa delako. Niri gustatzen zait karrikan jende ezagunarekin topo egitea, ondoko herrialde-tatik etorritakoekin, Nabarrerian

ibiltzea. Patxangarako musika. Giriak ere gustatzen zaizkit. Zeinen erraz ulertzen duten, ongi azalduz gero, Nafarroa Euskal Herrian dagoela eta oker daudela Espainiaz dakarten ideiak. Maite dut dantzazten nauten lagunekin egotea, esaterako Txumarekin edo Muskildarekin. Ezagutu beharko zenituzkete. Ez da, baina, dena arrosa kolorekoa, inoiz ez hobeki esanda, batez ere etxera bakar-bakarrik itzuli behar izaten naizenetan, aldien portzentaia ez txiki batean, sentsualitatezko uneak gogoan atxikiak.

Festak badu maite ez ditudan hainbat gauza ere (ez ligatzeaz gain). Haren inguruko literatura edo, agian esan beharko genuen, liturgia, topikoez betea. Aste osoa egunkaririk erosi ahal izan gabe, kronikak berdin-berdinak direlako, kazeta batetik bestera, urte batetik bestera. Zuri-gorriak berdintzen gaitu, hainbestearino bai, heriotzak berak bezainbeste kasik, oro zantpatzen baitu, hala pobrearen etxola nola aberatsaren jauregia. Alkoholaren demasia ere gaizki eramaten dut, goragalea eragiten dit. Dislexiaz edo *ahalkola* idazteko puntuan egon naiz. Txiste

ezaguna da. *San Peppermint* eskatzea bezala. Gurasoek hori eskatzen omen zuten, menda likorea. Guraso abstemioak ere edale santu.

Hiria goiti beheiti eraldatzen delako topi-koa, eta tristeena, egia dela, eta ez dakigula noiz garen *guago*. Falta da udaletzeko balkoian eraldaketa, norbaitek, beste norbaitek, *diva transfermin!*, *goza transfermin!* oihukatu izana. ■

Sanferminak dira Iruñean. 6a izaten da egunik hobere-
ren, seguruenik festa egunezkoa delako. Niri gustatzen zait
karrikan jende ezagunarekin topo egitea, ondoko herrialde-tatik
etorritakoekin, Nabarrerian ibiltzea. Patxangarako musika.
Giriak ere gustatzen zaizkit. Zeinen erraz ulertzen duten,
ongi azalduz gero, Nafarroa Euskal Herrian dagoela eta oker
daudela Espainiaz dakarten ideiak